

## GORABIDE



ASOCIACIÓN VIZCAINA EN FAVOR DE LAS  
PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL  
ADIMEN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN  
ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA

### ZER DA GORABIDE?

Gorabide da adimen-desgaitasuna duten Bizkaiko pertsonen familiek osatzen duten irabazi asmorik gabeko elkarte bat, helburutzat duena aukera ematea pertsona horiei beren bizi-asmoak betetzeko, gizarteko beste pertsonen baldintza berberetan. Laguntza eta berrikuntza eskaintzen du pertsona horiei eman beharreko erantzunetan, erabiltzailea ardatz duen laguntza-plangintza baten bidez, ikuspegi etiko batetik eta kudeaketa-eredu aurreratu bat erabilita, eta pertsona horien inklusioa sustatuz gizarte bidezkoago eta solidarioago batean.

1962an sortua, era honetako lehenengo erakundea da Bizkaian, lurralde osoan lan egiten duen bakarra, eta adimen-desgaitasun mota guztiak artatzen ditu. 4.800 erabiltzaile baino gehiago ditu; hau da, Bizkaiko Foru Aldundiak erroldatutako kolektiboaren % 85, gutxi gorabehera.

### ZER EGITEN DU GORABIDEK?

Gorabidek zerbitzu-multzo integral bat eskaintzen du, etengabeko laguntza emateko adimen-desgaitasuna duen pertsona bakoitzari bere bizialdi osoan, alor guztietan (bizilekua, aisia, eguneroko bizitza...), eta lanean dihardu pertsona horien presentzia normalizatzeko haien ingurunean. Horretarako, pertsona horien beharrak eta familienak aztertzen ditu, haien iritziak jasoz, eta behar horietara egokitutako zerbitzuak sortzen ditu, erantzukizun publikoko gizarte-sistema sendotzen dutenak.

Gainera, Lantegi Batuak egitasmoa sortu zuen, 1983an, adimen-desgaitasuna duten pertsonen laneratzea errazteko, eta Futubide - Gorabide Babes Fundazioa, 1991n, babesa, kuratela eta defentsa juridikoa eskaintzeko pertsona horiei, behar izanez gero.

### ZER ZERBITZU ESKAINTZEN DITU GORABIDEK?

Egoitzak	11 zentro	407 leku	Formakuntza familiei eta parte hartzea	5 talde	± 75 familia
Etxebizitzak	10 zentro	56 leku	Autokudeatzaileak	11 talde	± 100 pertsona
Bizitza independenterako laguntzak		14 leku	Aisia zentroak	6 zentro	± 600 leku
Eguneko arreta	11 zentro	210 leku	Denbora libreko jarduerak		± 350 leku
Aldi baterako egonaldiak	1 zentro	28 leku	Oporrak (uda eta pazko astea)		± 500 leku
Familiantzako atsedena asteburuetan	1 zentro	20 leku	Beste batzuk: - Harrera, informazioa, orientazioa eta laguntza. - Arreta psikologikoa eta psikiatrikoa. - Haur-gazteen orientazioa.		